

## Alkatearen probidentzia

Oñatiko Udaleko Informatika departamenturen egoera ikusita: informatikako departamentuaren karga postua betetzeko pertsona bat kontratatzeke proposamena egiten da.

190/2004 Dekretua, urriaren 13koa, euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzeko dena, bere **58. Artikuluak** dio:

*“1– Bitartekoen hautaketa egingo da gai horri buruz administrazio bakoitzak ezartzen dituen arauen arabera. Hautatzeko prozedurek, berdintasun, ageritasun, meritu eta gaitasun printzipioak bermatzen dituzten irizpideak izango dituzte oinarri, aldi berean irizpideok prozedura horiek ahalik eta zaluena izatea bideratzen dutela.*

*2– Berariazko araurik ez badago, hautaketa oro har egingo da funtzionario izateko edo aldi baterako enpleguaren poltsak eratzeko, izandako hautaketa prozesurik gainditu dutenen artean.*

*3– Giza-baliabideen kudeaketa eraginkorrari eragozten ez dion heinean, euskal herri administrazioek elkarri elkarlana eskainiko diote, bitarteko funtzionarioak izendatzeko xedez beren lan-poltsetan sarturiko langileak maileguan utziz.*

*4– Izangaiak hartzeko premiarik edo zailtasunik baldin badago, salbuespen bezala eta justifikaturiko memoria bitarteko delarik, enplegu zerbitzu publikoetatik baliatzeko aukera egongo da.”*

Halaber, abenduaren 30eko 11/2020 Legeak, 2022 urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, 19. artikuluan, honako hau xedatzen du: *“Ezin izango da aldi baterako langilerik kontratatu, ezta aldi baterako estatutupeko langilerik eta bitarteko funtzionarioen izendapenik egin ere, salbuespenezko kasuetan izan ezik, eta premiazko eta atzeraezinazko beharrezkoak betetzeko.”*

Oñatiko Udalak ez du informatika teknikari lan poltsa, eta beste udaletara jo ondoren ez du poltsarik lortu.

Informatika teknikaria izatea beharrezkoa da, zerbitzua ondo emateko. Horregatik, komenigarria eta beharrezkoa da enplegu zerbitzu publikoetatik hautagai bat izendatzea, informatika teknikari bat kontratatzeke.

Hori guztia kontuan izanda, HONAKOA XEDATZEN DUT:

1.- Aparteko inguruabarrak gertatzen direlako eta premia larria dagoelako, informatika teknikari postua betetzeko, 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena, 10.1.a artikulua arabera, plaza hutsik dagoen bitartean, enplegu Zerbitzu Publikoak jakinarazitako lan-kategoria horretako hautagaiak aukeratuz. Hileko soldata gordina informatika teknikariari dagokiona izango da.

2.- Honako profil hau eskatzen da:

### **Informatika teknikaria (A2), postua betetzeko:**

Lan kontratu mota: aldi baterako izendapena (15.1 c ET).

Jardunaldia: %100

Hileko soldata gordina: informatika teknikariari dagokiona

- Informatikako Ingeniaritzan, edo baliokidean, gradua, lizentziatura edo diplomatura
- Euskara C1

- Prestakuntza osagarria:
  - Postuarekin zerikusia duten ikastaroak

3.- Hautagaiak hautatzeko, **balorazio-irizpide** hauek hartuko dira kontuan:

#### 3.1 Beharrezko prestakuntza:

- Informatikako Ingeniaritzan, edo baliokidean, gradua, lizentziatura edo diplomatura
- Euskara C1

#### 3.2 Prestakuntza osagarria (gehienez 3 puntu):

- Postuarekin zerikusia duten ikastaroak (0.05 p orduko)

#### 3.3 Lanbide-esperientzia (gehienez 20 puntu):

0,20 puntuko puntuazioa Herri Administrazioan eskainitako hilabete oso bakoitzeko, lortu nahi den lanpostuaren baliokide diren eginkizunetan (A2 lanpostuetan), lanbidek igorritako informazioaren arabera. Administrazioa toki-administrazioa bada, 0,05 puntu gehituko dira hilabete oso bakoitzeko.

0,15 puntu Herri Administrazioan eskainitako hilabete oso bakoitzeko, informatika laguntzaile edo baliokidearen eginkizunetan (C1 sailkapen taldea), lan zerbitzuan jartzen duenaren arabera. Administrazioa toki administrazioa bada, 0,05 puntu gehituko dira hilabete oso bakoitzeko.

0,005 puntuko puntuazioa sektore pribatuan eskainitako zerbitzuen hilabete oso bakoitzeko, lortu nahi den lanpostuaren baliokide diren eginkizunetan, lanbidek igorritako informazioaren arabera eta iraupena eta lanbide-kategoria adierazita.

#### 4. Epaimahai kideak:

GGBB eta Antolakuntzako AOT  
Idazkaritzako AOT.

Oñatin, sinadura elektronikoan agertzen den datan  
Alkatea  
Sin.: Izaro Elorza Arregui



**OÑATI**  
dabilen herria

**Oñatiko Udala**

Foruen Enparantza, 1 • 20560 Oñati  
tel: +34 943 78 04 11 • [oñati.eus](http://oñati.eus)



**OÑATI**  
UDALA



EKS | CSV: **SINA15f387f2-9204-4173-8f18-c0ec28e69fad**

Egiatzatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

Informatika teknikaria, Lanbide

**CSV/EKS:**

SINA15f387f2-9204-4173-8f18-c0ec28e69fad